

Agintea soberan

Euskaldunon Egunkaria, 1998-07-21: 3.

Agintea onuragarria da zuzenbidez lortu eta neurritz erabiltzen denean, baina oinarri hauez kanpo jokatuz gero zigor gaizto ere bilakatu daiteke.

Ez naiz arrunkeiaz besterik ari, baina nolabait hasi behar da gure herrian preso politikoen gaia, errudunak diren eskubideak, ukitzerakoan. Badirudi presoak mundu honetatik kanpo geratu direla. Baina preso daudenek ere badituzte eskubideak demokrazian, eta hauen ardura dutenen eskubide berezien agintariak badu erantzun beharrik; ministro delako ez du dena libre. Demokrazian ez dago ahalmen mugagabeko inor. Espainia barruan, batez ere gaur, Europa Batuan sentitzen garen denok behar dugu izan, bakoitzari dagokion neurrian, legea betetzeko eskubidea, baina ez gehiago. Legez presoek badute eskubide jakinak dituen arautegia, eta ez gutxiago.

Ministroak ere baditu bere mugak, ez du dena diskrezio pertsonalaz nahi adina ahal.

Neroni naiz hemen kalifikazio txikiaren jabe, eta hala ere ez diot uko egin nahi prentsa bide dela kazetari bezala nire kontzientziaz injustiziak salatzeko dudan eskubideari. Batez ere alferrikako borroka hau oso gaizto luzatzen ari dela aldarrikatzeke.

Urteak pasa dira presoeri zor zaizkien eskubideak ukatuz, justiziak epaitu eta gero bere penak betetzen ari direnean eta bere familiak bereak ez diren erruak ordaintzen ari direla pentsatzeko arrazoirik ikusten badu. Ministroa bere aldetik, ministroa izango da, baina ez du mugagabeko ahalmenik seta pertsonalerako, legearen interpretazio politikorik egiteko eta politikoez beren partiduaren izenean iruditzen zaien guztia egiteko.

Beraiek ari dira legeak hausten auzi honetan, halaxe ikusten dut nire ikuspuntutik. Justu ikusten ez badut, libre da defentsioa. Nolanahi, Legea aplikatu diezaiotela ministroari ere, hau da justizia.